

## ALTSASU / ALSASUA IZENAREN INGURUAN

*Iruñean, 2003ko urtarrilaren 21ean*

*Patxi Salaberri,  
Onomastika batzordekidea*

Erdaraz *Alsasua* deitzen den herriaren euskarazko izena *Altsasu* da, eta inguruko herriren batean *Altsu*, herri hizkerak berezko ohi duen lastertasuna delata. Deklinatzeko bidea berriz, hurrengo hau da: *Altsasu, Altsasan, Altsasutik, Altsasura, Altsasukoa*... Herriarren izena, bestalde, *altsasuar* da (ikus *NHI*, 82).

Erran bezala txistukari afrikatua duen aldaera (*Altsasu*) da Euskaltzaindiak 1979an eta 1990ean hobetsi zuena, inguruko herri batzuetan erabiltzen dena (*NHI*, 82, *Euskalerrria Irratia & Muxika*, 1990: 47) eta egun euskara estandarrean orokortu dena, komunikabideetan, liburuetan, agiri ofizialetan eta bestetan erabiltzearen ondorioz. Nolanahi ere, Kandido Izagirre zenak, «Altsasuko euskeraren gai batzuk» izeneko lanean (1967), herriko euskaldun batzuen ahotik frikaria (*s*) zuen aldaera bildu zuen: *alsasuarrak* 'los de Alsasua' (50. or.), *Alsasuko estáziyoa* (86. or.), *Alsasutí* 'Altsasutik', *Alsasúa* edo *Alsasúa* 'Altsasura', *Alsasuko portubaiú* 'Altsasuko portu hau' (92. or.). Kontuan hartu behar da, halarik ere, lan horretan berean *Aranzazun* 'Arantzazun' (86. or.) eta *Aránzazu* 'Arantzazu' (90. or.) ere bildu zituela, alegia, *tz*-ren ordainetan *z* duten aldaerak. Zernahi gisaz, *NHI*-n ere jasotzen dira *Altsasu, altsasuar* eta *Alsu, alsuarra* lekukotasunak, hondarreko biok Urdiainen.

*Nafarroako Euskaldunen Mintzoak* izeneko lanean Burundako aipatu herriko Luzia Zufiaurren ahotik lekukotasun hau bildu zuen Euskalerrria Irratiak (1990: 47):

«Urdiaingoa. Baakizu oi nola dan? Zian bi apiz anaiek, e? Bat **Altsasun**, zarrena ta bestia Urdiaíñen, eta **Altsasukoa** zarro zelako San Pedrok bee eguna patatu zen, zarrena zalako **Altsasukoak** eamateko, ta hala segitzen dau. Ya noiz ezkeo, e? Urtiak izein dia, gue abuelak eta esaten zain hola izan zala, bi anai, apiz, bat Urdiaíñen eta bestea **Altsasun**, ta **Altsasukoa** zarrena zalako San Pedrok bee eguna **Altsasukok** zebratu, ta hurrengo jaien zebratzen da hemen, eta hola segitzen dau» (beltza gurea da).

Urbasan *Altsuko mugako bretxa*, *Altsukosaizarra* eta *Altsuko txabola* toki izenak daude bizirik, hau da, *Altsasuko mugako bretxa*, *Altsasuko sare zaharra* eta *Altsuko txabola* (ikus *NTM-XVIII*, 108). Gogoratu beharra da, pun-

tu honetan, horrelako izen laburtzeak aski ezagunak direla euskal toponimian: *Dorrao, Dorrau Æ Dorro, Irañeta Æ Irinte, Lizarragabengoa Æ Lixarrango, Olatzagutia Æ Olazti, Urdiain Æ Urdin...* eta abar. Dokumentazioan *Alsasusaroa* ageri da 1743an erdaraz idatzitako agirian, hots, segur aski *Altsasusaroa* ebakitzen zen leku izena.

Literaturan *Altsasu* ez da agertzen, XX. mende arte. Manezaundik 1935eko artikulu batean aipatzen du, bukaeran *-a* eta guzti duela, baina go-goan eduki beharra da idazlea garaztarra zela, Luzaidekoa, urrungoa beraz:

«Bainan horiek ethorri baino lehen (sic), Espainiarrak, Duque de Alba buruzagi, sartu ziren Naparroan Gazteiz'ko bidetik **Altsasua** eta Arakil'eko ibarrian barna». (E. Zubiri «Manezaundi», 1990: 159. Beltza gurea da).

Testu berriagoetan ohikoa *Altsasu* da:

«Hala ere ederki entzuten zen Tolosaraino eta Nafarroan **Altsasu** eta Olaztiraino» (Mitzelena, 1988 [1958]: 100. Beltza gurea da).

«Euskalerrri barruan ere badaude zenbait leku, industria nahiz uda dela bide, erdararen barreatzaile: **Altsasu**, Olazti, Doneztebe, Elizondo...» (Mitzelena, 1988 [1960]: 119. Beltza gurea da).

«Aski da **Altsasuko arainau**n eta *arainau-etziti* Txorierriko *erenegun* eta *erenegun-atxeti*-rekin erkatzea goian geniona ikusteko (...))» (Mitzelena, 1988 [1971]: 104. Beltza gurea da).

«Nafarroako kateek ez zuten baztertu hamahirugarren mendeko aldaketan, eta herri banakatuetakoa udalek ere euren hegazti hego zabalduna atxiki zuten, bi buruko itxura bereziarekin batzuek, eta burubakarreko iduri normalarekin besteek. Denborarekin, eranskinak hartu zituen **Altsasukoak**» (Satrustegi, 1999: 55. Beltza gurea da).

«Otalur esaten zioten lehengo urdiaindarrek **Altsasuri**. Otea ez da noski estimu oneko landarea nekazari herrietan, eta probetxu gutxiko sasia izateaz bestalde, lur txarreko herri pobrea bezala hartzen zen» (Satrustegi, 1999: 58. Beltza gurea da).

«Zeruetatik etorriya da / maitasunez beterik / gure **Altsasuko** Otadien / dagoen Kristo besuak zabalik» (Satrustegik biltzen du, 1999: 58. Beltza gurea da).

«**Altsasuk** eta Urdiainek erdibana zaintzen duten San Pedro baselizako atalburuan harrizko letretan esaten da bertan koroatu zutela Garzia Ximenez Erreinu zahar honetako lehen errege, 717ko urtarrilaren 20an» (Satrustegi, 1999: 87. Beltza gurea da).

Izenaren bukaera dela eta, erran beharra da lekukotasun zaharretan normalean *-a* ohi duela (*NHI*, 82), baina Mitxelenak dioenez (1983: 450) 1288. urtean *Semeno de Alssasso* agertzen da eta XVI. mendean ere bazen *Melchor de Alsasu* izeneko bizilagun bat Lizarran (Nafarroako notario protokoloak, 4. karpeta). Karasatorrek (1993: 519) *lugar de Alsasu* biltzen du 1738. urtean eta *Villa de Alzazu* 1756an. Aldizkatze hau beste herri izen batzuetan ere gerta-

tzen da, *Bacaicu / Bacaicua*-n (ikus *NHI*, 82) eta *Iturmendi, Yturmendi / Yturmendia*-n adibidez (ibid.).

Bistan da erdaraz ibiltzen den *Alsasua* eta euskaraz ohikoa den *Altsasu* etimo beretik, leku beretik atera direla. Iturri komun hori \**Altsa(t)sua*-ren moduko bat zatekeen; hemendik gaztelaniak afrikatua (*ts*) frikarituko zuen (*s*), bere ebakera ohituretara egokitzeko, eta euskarak berriz, azkeneko *-a* kendu-utzizko hori lekuaraziko zuen, segur aski inesiboaz beste toki kasuek eraginik, zeren beharbada *Altsasuan* usaiakoa bazen ere gero *Altsasutik, Altsasura* eta *Altsasuko* erraten baitzen, jakina denez toponimoak leku kasuetan erabiltzen direlako gehienik.

Burunda arrunt euskalduna izan da orain gutxi arte eta oraindik ere hala da hein batean, eta uste izatekoa da herrian eta inguruetan, berandu arte, euskarazko izena izan dela jaun eta jabe, dokumentazio ofizialean ez bezala, hau erdaraz idatzirik baitago, ezaguna denez. Erran nahi dugu *Altsasu / Alsasua*-n ez dugula *Doneztebe / Santesteban, Hiriberri / Villanueva*-ren moduko balio-kidetasunik, ez eta *Lizarra / Estella, Orreaga / Roncesvalles*-en antzeko desberdintasunik, erdarak egindako euskal izen baten (*Altsasu(a)*-ren) egokitzea baizik (*Alsasua*).

## Bibliografia

Euskalerrria Irratia & Muxika, M. (1990): *Nafarroako Euskaldunen Mintzoak*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.

Euskaltzaindia (1979): *Euskal Herriko Udalen Izendegia*, Bilbo.

Euskaltzaindia & Nafarroako Gobernua (1990): *Nafarroako Herri Izendegia / Nomenclátor Euskérico de Navarra*, Iruñea.

Izagirre, K. (1967): «Altsasuko euskeraren gai batzuk», *ASJU* 1, 45-97.

Jimeno Jurío (zuzendari) (1993): *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza / Toponimia y Cartografía de Navarra. Andia – Urbasa – Goñi, (NTM)*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.

Karasatorre, R. (1993): *Barranca – Burunda*, Morentin.

Mitxelena, K. (1983): «Iruñea», *Piarres Lafitte-ri Omenaldia*, Iker-2, Euskaltzaindia, Bilbo, 445-451.

(1988 [1958]): «Elgarresta jaunak esan digu», *Euskal idazlan guztiak I. Bertso berriak, berriketan, zinea eta adabakiak*, Eusko Jaurlaritza & Euskal Editoreen Elkarte, Klasikoak 21, 99-101.

(1988 [1960]): «Iruñetik», *Euskal idazlan guztiak I. Bertso berriak, berriketan, zinea eta adabakiak*, Eusko Jaurlaritza & Euskal Editoreen Elkartea, Klasikoak 21, 115-120.

(1988 [1971]): «Egunak eta egun-izenak», *Euskal idazlan guztiak VII. Hizkuntzalaritza II*, Klasikoak 27, Eusko Jaurlaritza & Euskal Editoreen Elkartea, Donostia, 93-110.

Satrustegi, J. M. (1999): *Sakanerri barrena. Historia, Herri Jakintza eta Ohiturak*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.

Zubiri, E. «Manezaundi» (1990 [1935]): *Artikulu bilduma*, Klasikoak 41; R. M. Pagolak paratu argitalpena, Eusko Jaurlaritza & Euskal Editoreen Elkartea, Bilbo.